



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Garamendik iragarri dauenez, "XXI. menderako" Bizkaibus zerbitzu barria Gabonak aurretik jarriko da martxan

Bilbon, 2014ko azaroaren 14an.

Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreak Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur iragarri dauenez, Bizkaibuseko zerbitzu barria Gabonak aurretik hasiko da zerbitzua emoten, eta Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak datorren martitzenean landuko ditu emakida lortu daben enpresen trantsizio planak.

Garamendi berak eskatuta agertu da gaur Batzordearen aurrean, Bizkaibusen bizi izandako gatazka sindikalaren konponketea azaltzeko. Gatazkea joan dan urriaren 30ean amaitu zan, Foru Aldundiaren eta sindikatuen arteko akordioaren ostean. Konponketari esker amaiera emon jakon hainbat lan geldialdi jardunaldiri. Jardunaldi horreetan hainbat gertakari eta kalte material eragin zan gitxieneko zerbitzuak eskintzen ebezan unidade batzuetan. Ganera, urriko 27an muga bako grebea hasi zan.

Diputatu andreak, foru erakundeak Bizkaibuseko gatazka osoan egin dauen lana defendidu dau, bere eretxiz "bidebakoa eta justifikau ezina" izan dan grebari bukaerea emoteko aurrera eroandako "talde lan ezin hobea" azpimarratuz, eta pozik agertu da, bizkaitarrek "denpora gitxi barru XXI. menderako Bizkaibuseko zerbitzua eukiko dabelako, kalidade altuenekoa". Bere eretxiz "lan izaerarik euki ez dauen gatazka hau Aldundiari egurra emoteko" baliatu dabenak be kritikau ditu.

Oposizinoko talde guztiek, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andreak mahai gainean jarritako "informazino faltea" kritikau dabe. Holan, Jesús Isasi Bizkaiko Talde Popularreko (PP) bozeroaleak, "zerbitzuan sartuko diran linea barriei eta, banan-banan, bakoxtxaren kostuari" buruzko datu gehiago eskatu deutzaz Garamendiri.

Aitor Torre EH Bilduko bozeroaleak, bere aldetik, Itziar Garamendi buru dan Sailak Bizkaibuseko gatazkan egin dauena kritikau dau. "Uste dot gatazkagaz jolasten ibili dirala eta komunikabideak erabili dituela, oposizinoaren kontra jotzeko eta sindikatuak kriminalizetako", esan dau.

Aitor Torrek, José Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldun Nagusiak Bizkaibuseko grebea konpontzeko orduan egin dauen lanari buruz galdetu dau. Gai horri jagokonez, Ahaldun Nagusiak UGT Euskadiko idazkari nagusiari, alkartzeko eta gatazkea desblokeetako, bialdu eutsan washapp-eko mezua irakurri dau. Joaquín Colmenerok (PSE-EE) be José Luis Bilbaok jokatu dauen papera azpimarratu dau. Bere eretxiz, Ahaldun Nagusia, "eserlekutik zelaira urten eta betirako luzatuko litzateken bardinketea apurtzen dauen gola sartzen dauen futbolari izar horreek" moduan aritu da.

Diputatu Andreak Aitor Torreri erantzun deutso, "ez naz inolako ekarpenik egiten ez daben eleberrietako kontakizunetan sartuko", eta "batzuk arazo bat konpontzeko ahaleginetan ari ginan bitartean, beste batzuk pankarta atzean eta bronkan egozan" esanez. "Nik gurago dot akordioa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

bronkea baino”, azpimarratu dau, lanuzte eta greba egunetan Bizkaibuseko unidade batzuk jasan ebezan eta “bizkaitar guztiok ordaindu beharko doguzan” kalte materialak gogoratu ostean.

Aitor Torrek, “akordioak enpleguan eukiko dauen eraginari” buruzko informazioa be eskatu dau, eta, “hasera batean Bizkaibuseko lanpostuen amortizazinora bideratu behar zan 12 milioi euroko partidea garraio publikoaren zerbitzua hobetzera bideratu daitela” eskatu dau.

Nerea Ahedo EAJ-PNV-ko bozeroalea Itziar Garamendiren alde agertu da eta zoriondu egin dau, Bizkaibuseko arazoa konpondu dalako. Bere berbetan, gatazka horren “zergaitiak ez egozan lan gaiakaz erlazionauta”. “Hasera-haseratik, emakida barrien kontratuen pleguek, beharginen lanpostuak eta lan baldintzak bardin jarraituko ebela jasoten eben”, esan dau.

MARKESINAK BARAKALDON

Herri Lan eta Garraio batzordeak aho batez onartu dau batzarretako talde sozialistak, arauz besteko proposamen baten bitartez, Barakaldon Bizkaibuseko markesinak instaletako egin dauen eskaria, Manolo Travieso kalean, Lasasarreko futbol zelaiaren aurrean eta Askatasun Etorbideko 23 zenbakian, Barakaldoko Udalak, udalerrri horretako biztanleen eskariak entzun ostean, eskatu dauen moduan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Garamendi anuncia que el nuevo servicio de Bizkaibus se pondrá en marcha antes de Navidad

Bilbao, a 14 de noviembre de 2014.

La Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes Itziar Garamendi ha anunciado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia que el nuevo servicio de Bizkaibus entrará en funcionamiento antes de Navidad y que el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral tratará el próximo martes los planes de transición de las empresas concesionarias.

Garamendi ha comparecido hoy en Comisión a petición propia para explicar la resolución del conflicto sindical en Bizkaibus, que finalizó el pasado día 30 de octubre tras un acuerdo entre la Diputación Foral y los sindicatos. El mismo puso fin a varias jornadas de paros parciales, en las que se registraron incidentes y daños materiales en algunas unidades que cumplían servicios mínimos, y una huelga indefinida que comenzó el día 27 del mismo mes.

La Diputada ha defendido el papel de la institución foral en todo el conflicto de Bizkaibus, destacando “el impecable trabajo en equipo” llevado a cabo para acabar con la huelga que ha calificado de “injusta e injustificable” y se ha felicitado por el hecho de que las vizcaínas y vizcaínos “contarán en breve con un servicio de Bizkaibus para el siglo XXI, de mayor calidad”. También ha criticado a aquellos que, en su opinión, “han aprovechado este conflicto, que no era de carácter laboral, para atizar a la Diputación”.

Todos los grupos de oposición han criticado, por su parte, “la falta de información” aportada por la Diputada Foral de Obras Públicas y Transporte. Así, el portavoz del grupo Popular Vizcaíno (PP) Jesús Isasi ha reclamado a Garamendi más datos sobre “las nuevas líneas que se van a incorporar al servicio y el coste económico de las mismas, una por una”.

Por su parte, el portavoz de EH Bildu Aitor Torre ha criticado la labor del Departamento que encabeza Itziar Garamendi en todo el conflicto de Bizkaibus. “Creo que ha estado jugando con el conflicto y utilizando los medios de comunicación para cargar contra la oposición y para criminalizar a los sindicatos” ha afirmado.

Aitor Torre ha preguntado por el papel del Diputado General de Bizkaia José Luis Bilbao en la resolución de la huelga en Bizkaibus. En este sentido, ha leído el mensaje de washapp que el Diputado General envió al secretario general de UGT Euskadi con el fin de mantener un encuentro y desbloquear el conflicto. Un papel, el de José Luis Bilbao, al que también se ha referido Joaquín Colmenero (PSE-EE), que ha comparado al Diputado General con “el futbolista estrella que sale del banquillo para meter el gol que acaba con un empate eterno”.

La Diputada ha respondido a Aitor Torre que “no voy a entrar en relatos novelescos que no aportan nada” y que “mientras algunos estábamos trabajando en la resolución de un problema, otros estaban en la pancarta y en la bronca”. “Yo prefiero el acuerdo a la bronca”, ha subrayado, tras recordar los daños materiales, “que vamos a tener que pagar todas las vizcaínas y vizcaínos”, provocados en algunas unidades de Bizkaibus durante los paros y la huelga.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Aitor Torre ha solicitado también información sobre “el efecto del acuerdo sobre el empleo” y que “la partida de 12 millones de euros destinada inicialmente a la amortización de puestos de trabajo en Bizkaibus se destine a la mejora del servicio de transporte público”.

La portavoz del PNV Nerea Ahedo ha apoyado y felicitado a la Diputada Foral Itziar Garamendi por la resolución del problema en Bizkaibus, el cuál, en su opinión, “no respondía a motivos laborales”. “Desde un principio, los pliegos del contrato de las nuevas concesiones recogían el mantenimiento de los puestos de trabajo y de las condiciones laborales de los trabajadores”, ha señalado.

MARQUESINAS EN BARAKALDO

La comisión de Obras Públicas y Transporte ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada por el grupo juntero socialista para la instalación de marquesinas de Bizkaibus en Barakaldo, concretamente en la calle Manolo Travieso, frente al campo de fútbol de Lasesarre, y en el número 23 de la avenida de La Libertad. De esta forma, las Juntas Generales se hacen eco de una petición del ayuntamiento de Barakaldo, que recogía a su vez la demanda de vecinos de la localidad.